4. Eskatutako dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenak bide administratiboa bukatzen du eta horren aurka erakunde interesdunek administrazioarekiko berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango dute bi hilabeteko epean, ebazpen hori jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Errekurtsoa dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian jarri beharko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

4. La resolución por la que se proceda a la concesión o denegación de la subvención solicitada agota la vía administrativa y contra la misma las entidades interesadas podrán interponer recurso contencioso administrativo en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente a la notificación de dicha resolución ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo que corresponda, según lo establecido en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Gainera, aldez aurretik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako neurriak hartu ahal izango dira, baita norberaren interesak defendatzeko bidezkotzat jotzen den beste edozein neurri ere.

Igualmente, y de forma previa, cabrá adoptar las medidas establecidas en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, sin perjuicio de cualquier otra que estime procedente en defensa de sus intereses.

10. oinarria. *Diru-laguntzen bateragarritasuna.*

Base 10. *Compatibilidad de las subvenciones.*

1. Foru dekretu honetako dirulaguntza bateragarria izango da erakundeak helburu bererako jasotzen dituen beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok edo erakunde publikok zein pribatuk emandakoekin.

1. La subvención contemplada en el presente decreto será compatible con otras subvenciones, ayudas o ingresos que la entidad interesada pueda obtener para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o internacionales.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 97ER-VW2P-P8TD-EUPP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. Bizkaiko Foru Aldundiak emandako ekarpen ekonomikoarekin batera beste erakunde publiko edo pribatu batzuek xede bererako emandako beste ekarpen batzuk lortzen badira eta ekarpen horien guztien batura handiagoa bada jarduerak egiteko memorian jasotzen den aurrekontuko zenbatekoa baino, txikitu egingo da Bizkaiko Foru Aldundiak erabakitako ekarpena, Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 18.3 artikuluarekin bat. Horretarako, onuradunek aurkeztu beharreko eskaera, memoria eta txostenetan adierazi egin behar da bestelako ekarpen, laguntza edo dirulaguntzarik jaso den eta zein den haien zenbatekoa.

2. Cuando la aportación económica de la Diputación Foral de Bizkaia concurriera con otras otorgadas por entidades públicas o privadas con el mismo objetivo y finalidad, si la suma de las mismas superase el presupuesto establecido en la memoria de realización de actividades presentada, se declarará la incompatibilidad de dicho exceso, reduciéndose el importe de la aportación acordada por la Diputación Foral de Bizkaia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 18.3 de la norma foral de subvenciones. A tal fin, en la solicitud, memoria e informes que deban ser presentados, deberá hacerse constar la cuantía y percepción de tales aportaciones o ayudas y subvenciones.

11. oinarria. *Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko era..*

Base 11. *Forma de cálculo del importe de la subvención.*

1. Toki-erakunde interesdunak aurkeztutako proiektua erakundearen funtsekin eta Bizkaiko Foru Aldundiaren diruzko ekarpen (dirulaguntza) batekin kofinantzatu behar da.

1. El proyecto presentado por la entidad local interesada será cofinanciado mediante la aplicación de fondos propios y una aportación dineraria (subvención) de la Diputación Foral de Bizkaia.

2. Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzaren kalkulua 8. artikuluan ezarritako zerrendarekin bat egingo da (dirulaguntza jaso dezaketen gastuena), honela:

a. Erakunde eskatzaileak aurrekontuan sartutako gastu propioen % 50, bai langileenak, bai orokorrenak eta/edo zeharkakoenak, honako muga hauekin:

- 25.000 biztanle edo gutxiago dituzten Bizkaiko udal, mankomunitate eta udalerrien partzuergoen kasuan, laguntza 6.000 euro izango dira, gehienez.
- 25.000 biztanle baino gehiago dituzten Bizkaiko udal, mankomunitate eta udalerrien partzuergoen kasuan, laguntza 10.000 euro izango dira, gehienez.

2. El cálculo de la subvención de la Diputación Foral de Bizkaia se realizará, conforme a la relación de gastos subvencionables establecida en el artículo 8, de la siguiente forma:

a. El 50% de los gastos propios presupuestados por la entidad solicitante, tanto los del personal como los generales y/o indirectos, con los siguientes límites:

- Para los municipios, mancomunidades y consorcios de municipios de Bizkaia con un número de habitantes igual o inferior a 25.000, la cantidad máxima a subvencionar será de 6.000 euros.
- Para los municipios, mancomunidades y consorcios de municipios de Bizkaia, con un número de habitantes superior a 25.000, la cantidad máxima a subvencionar será de 10.000 euros.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 97ER-VW2P-P8TD-EUPP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

b. Erakunde eskatzaileak aurrekontuan jasotako kanpoko gastuen % 70, honako muga hauekin:

- 25.000 biztanle edo gutxiago dituzten Bizkaiko udal, mankomunitate eta udalerrien partzuergoen kasuan, laguntza 10.000 euro izango dira, gehienez.

- 25.000 biztanle baino gehiago dituzten Bizkaiko udal, mankomunitate eta udalerrien partzuergoen kasuan, laguntza 14.000 euro izango dira, gehienez.

12. oinarria. *Ordaintzeko era.*

1. Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, hura onartzen duen foru-agindua eman ondoren, eta aldez aurretikoa izango da, onuradunaren aldekoa; nolanahi ere, dirulaguntza emateko ebazpenean aurrez ikusi diren helburuetarako erabili behar da dirulaguntza osoa eta aurretik foru dekretu honetan ezarritako baldintzak bete behar dira.

2. Diru-laguntzei buruzko erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 30.3 artikuluan xedatzen denarekin bat, erakunde onuradunaren izaera kontuan hartuta, ez zaio eskatuko bermea eratu dezala, ez baitago arriskurik bereganatu dituen betebeharrak ez betetzeko.

13. oinarria. *Azpikontratazioa.*

1. Diruz lagundutako proiektua osatzen duten ekintza guztiak % 75eraino azpikontrata daitezke, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan (arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen Diru-laguntzen Lege Araubide Orokorra arautzen du) eta haren erregelamenduaren 53. artikuluan ezarritako baldintzetan.

b. El 70% de los gastos externos presupuestados por la entidad solicitante, con los siguientes límites:

- Para los municipios, mancomunidades y consorcios de municipios de Bizkaia con un número de habitantes igual o inferior a 25.000, la cantidad máxima a subvencionar será de 10.000 euros.

- Para los municipios, mancomunidades y consorcios de municipios de Bizkaia, con un número de habitantes superior a 25.000, la cantidad máxima a subvencionar será de 14.000 euros.

Base 12. *Forma de pago.*

1. El pago de la subvención será único y con carácter anticipado a favor de la entidad beneficiaria tras la orden foral de concesión de la subvención, y quedará, en todo caso, condicionada, a la aplicación total de la cantidad concedida a los fines específicamente previstos en la resolución que la otorgue y una vez cumplidos los requisitos establecidos en el presente decreto foral.

2. Conforme a lo dispuesto en el artículo 30.3 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el reglamento de subvenciones, dada la naturaleza jurídica de la entidad beneficiaria, no será exigible la prestación de garantía por parte de la misma, por cuanto no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas.

Base 13. *Subcontratación.*

1. Podrán subcontratarse hasta el 75% del importe de las acciones que integran el proyecto subvencionado en los términos previstos por el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, reguladora del Régimen Jurídico de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el artículo 53 de su reglamento.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 97ER-VW2P-P8TD-EUPP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Aurrekoa gorabehera, ezingo dira azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitu arren jarduera horri balio erantsirik ez dakarkioten jarduerak.

No obstante, lo anterior, en ningún caso podrán subcontratarse actividades que, aumentando el coste de la acción subvencionada, no aporten valor añadido a la misma.

2. Hirugarren batzuekin idatziz egiten diren eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera (lege horren bidez ekartzen baitira Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontsularen 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak) adjudikatzen diren kontratuak onartuko dira, nahiz eta dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditzen duten eta haien zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa den. Halakoetan, erakunde onuradunak kontratu horien berri eman beharko dio Bizkaiko Foru Aldundiari.

2. Se autoriza aquellos contratos con terceros que excediendo del 20% del importe de la subvención y, siendo su importe superior a 60.000 euros, se celebren por escrito y se adjudiquen conforme a la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por las que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, quedando la entidad beneficiaria obligada a informar a Diputación Foral de Bizkaia de la celebración de los mismos.

3. Ezin izango da kontraturik zatitu, hari dagokion zenbatekoa gutxitu eta goiko paragrafoko betekizunak bete beharra saihesteko.

3. No podrá fraccionarse un contrato con el objeto de disminuir su cuantía y eludir el cumplimiento de los requisitos exigidos en el párrafo anterior.

4. Kontratistek erakunde onuradunarekin soilik izango dituzte betebeharrak. Izan ere, onuradunak hartuko du, Administrazioaren aurrean, diruz lagundutako ekintzak burutzeko erantzukizun osoa. Gainera, erakunde onuradunen ardura izango da hirugarren batzuekin hitzartutako ekintza diruz lagunduak gauzatzean errespetatu daitezen dirulaguntza jaso dezaketen gastuen izaerari eta zenbatekoari dagokienez dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako mugak. Kontratista horiek laguntzeko betebeharra dute, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 41. artikuluak xedatutakoarekin bat (arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen Diru-laguntzen Lege Araubide Orokorra arautzen du).

4. Las personas contratistas quedarán obligadas solo ante la entidad beneficiaria, que asumirá la total responsabilidad de la ejecución de las acciones subvencionadas frente a la Diputación Foral de Bizkaia. Además, la entidad beneficiaria será responsable de que en la ejecución de las acciones subvencionadas concertadas con terceras personas se respeten los límites que se establecen en la normativa reguladora de la subvención, en cuanto a la naturaleza y cuantía de los gastos subvencionables. Estas personas contratistas estarán sujetas al deber de colaboración previsto en el artículo 41 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, reguladora del Régimen Jurídico de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

5. Erakunde onuradunak ezin izango du inola ere hitzartu diruz lagundutako ekintzak osorik edo partez egitea 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27.7 artikuluan zehaztutako pertsona eta erakundeekin (arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen Diru-laguntzen Lege

5. En ningún caso podrá concertarse por parte de la entidad beneficiaria la ejecución total o parcial de las acciones subvencionadas con las personas y entidades reseñadas en el artículo 27.7 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, reguladora del Régimen Jurídico de las Subvenciones

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 97ER-VW2P-P8TD-EUPP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Araubide Orokorra arautzen du).

14. oinarria. *Ezesteko arrazoiak.*

1. Honako hauek izango dira dirulaguntzaren eskaera ezesteko arrazoiak:

a) Erakundeek proposatutako ekintzak ez egokitzea foru dekretu honetan programarako definitutako helburuari.

b) Erakunde eskatzaileak ez betetzea 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan eskatzen diren betekizunetako bat (arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen Dirulaguntzen Lege Araubide Orokorra arautzen du).

c) Erakunde eskatzaileak ez betetzea foru dekretu honen 8. artikuluan ezartzen diren betekizunetako bat.

d) Dagokion aurrekontu-izendapenean dagoen kreditua agortzea.

15. oinarria. *Erakunde onuradunaren betebeharrak.*

1. Erakunde onuradunek, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntzen oinarri arautzaileetan ezartzen diren edo haien arauditik datozen betebeharrez gainera, honako konpromiso hauek hartzen dituzte:

a) Dirulaguntza honen xedea betetzeko beharrezkoak diren giza baliabide guztiak —propioak edo kontratatuak— abian jartzea, eta erakundearen eskumenekoa izango dira bai langileekiko harreman juridiko-laborala, bai programa ondo eta era eraginkorrean emateko beharrezkoak izan daitezkeen langileen ordezkapenak, programan aurrez ikusitako ekintza guztiak betez beti ere.

b) Diruz lagundutako proiektuaren erantzule bat izendatzea, erdi-mailako edo goi-mailako tituluduna—; pertsona horren ardura izango da proiektuaren zuzendaritza eta ikuskapenari lotutako eginkizun guztiak betetzea.

otorgadas por la Administración Foral.

Base 14. *Motivos de desestimación.*

1. Serán motivos de desestimación de la solicitud de subvención los siguientes:

a) Las acciones propuestas por las entidades no se adecúen al objeto definido en el presente decreto foral.

b) Que la entidad solicitante no cumpla alguno de los requisitos exigidos en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

c) Que la entidad solicitante no cumpla con alguno de los requisitos exigidos en el presente decreto foral.

d) El agotamiento del crédito existente en la consignación presupuestaria correspondiente.

Base 15. *Obligaciones de la entidad beneficiaria.*

1. La entidad beneficiaria, además de las obligaciones establecidas en las bases reguladoras o que dimanen de la normativa reguladora de las subvenciones otorgadas por la Diputación Foral de Bizkaia, se compromete a:

a) Poner en marcha todos los recursos humanos, propios o contratados, que sean necesarios para el correcto desarrollo del objeto de esta subvención, siendo de su competencia la relación jurídico-laboral del personal y las sustituciones de profesionales que puedan ser necesarias para la correcta y eficaz prestación del proyecto, cumpliendo todas las acciones previstas en el mismo.

b) Asignar al proyecto subvencionado una persona responsable del mismo, titulada media o superior, encargada de realizar todas aquellas funciones que correspondan a la dirección y supervisión del proyecto.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 97ER-VW2P-P8TD-EUPP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

c) Beharrezkoak diren baliabide material eta ekonomikoak jartzea proiektuaren eskura, dirulaguntzaren kargura lor daitezkeen baliabide ekonomikoak edozein direla ere.

d) Bizkaiko Foru Aldundiak proiektua gauzatzeko eskaintzen duen lankidetzaren zabalkundea egitea; horretarako, Aldundiaren logotipoa eta lankidetza hori azaltzeko idazkuna jarriko dira argitaratzen diren publizitate eta argitalpen guztietan.

e) Aplikatu beharreko arautegiaren arabera behar dituen baimen eta erregistro guztiak lortzea.

f) Jarduera burutzeko behar diren arau guztiak betetzea: lanari, aseguruei, arriskuen prebentzioari, erabiltzaileen segurtasun integralari, eta abarrei buruzkoak.

g) Nazioko edo nazioarteko beste herri-administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek helburu bererako emandako dirulaguntza edo laguntzaren bat jasoz gero, berehala jakinaraztea Gizarte Ekintza Sailari.

h) Diruz lagundutako ekintzen inguruko jendaurreko agerpen guztietan hizkuntza ofizial biak (euskara eta gaztelania) erabiltzea.

i) Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea herritarrei bere jardueraren publizitatea egiteko erabiltzen diren eskuorri, kartel edo bestelako euskarri guztietan.

j) Hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabiltzea diruz lagundutako proiektua garatzeko behar den dokumentazio grafiko eta idatzi guztian.

k) Sexuaren eta adinaren (60 urteko gorako eta beherako pertsonen kopurua) araberako bereizketa egitea diruz lagundutako ekintzei buruzko justifikazio-memorian.

l) Dirulaguntza hau dela-eta antolatzen diren zerbitzu, ekitaldi edo jarduera guztietan oztopo arkitektonikoak eta komunikaziorako oztopoak

c) Poner a disposición del proyecto los medios materiales y económicos que sean necesarios, con independencia de los recursos económicos que puedan obtenerse con cargo a la subvención.

d) Difundir la colaboración de la Diputación Foral de Bizkaia en la ejecución del proyecto, mediante la incorporación de su logotipo y una leyenda explicativa en todos los medios publicitarios y publicaciones que se editen.

e) Obtener todas las autorizaciones y registros a que estuviere obligada por razón de la normativa que le sea aplicable.

f) Cumplir todas las normas laborales, seguros, prevención de riesgos, seguridad integral de las personas usuarias de sus servicios etc., que requiera el desarrollo de su actividad.

g) Comunicar al Departamento de Acción Social de forma inmediata la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad procedentes de cualquier administración pública o ente público o privado, nacional o internacional.

h) Utilizar las dos lenguas oficiales, euskera y castellano, en todas las intervenciones públicas resultantes de las acciones subvencionadas

i) Utilizar las dos lenguas oficiales en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía.

j) Utilizar en toda la documentación escrita y gráfica que se produzca en desarrollo del objeto subvencionado, lenguajes e imágenes de carácter no sexista.

k) Realizar una desagregación por razón de sexo y edad (nº personas mayores y menores de 60 años) en la presentación de la memoria justificativa de las acciones subvencionadas.

l) Colaborar en la eliminación de barreras arquitectónicas y de comunicación, en todos los servicios, eventos o actividades que se organicen

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 97ER-VW2P-P8TD-EUPP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ezabatzen laguntzea.

m) Proiektuaren exekuzio materiala justifikatzea, bai eta emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa horretarako erabili dela ere.

n) Bizkaiko Foru Aldundiari baimena eta laguntza emango dizkiola diruz lagundutako proiektuak egokitzat jotako bideen bitartez zabaldu eta argitaratzeko.

ñ) Erakunde onuradunak, bere kasuan, Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren II. Tituluan jasotako eskakizunak bete beharko ditu.

o) Erakunde onuradunak emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko du; salbu eta interes publikoko arrazoiek betebehar horiek salbuestea justifikatzen badute; kasu horretan, organo proposatzaileak justifikazio-txostena aurkeztu beharko du.

16. oinarria. *Zer epetan eta nola justifikatu behar den dirulaguntza.*

Dirulaguntzaren erakunde onuradunak, aurreko artikuluan aipatutako betebeharrak betetzeaz gain, konpromisoa hartzen du proiektuaren gauzatze materiala eta emandako dirulaguntzaren zenbateko osoaren dedikazioa justifikatzeko, justifikazio-kontu bat aurkeztuta. Horretarako, foru dekretu hau indarrean sartzean egoitza elektronikoan argitaratuta dauden ereduak bete beharko dira, dirulaguntzei buruzko foru arauaren erregelamenduko 57. artikuluaren arabera.

Justifikazio-kontu hori urtarrilaren 2ko 00:00etatik 2026ko maiatzaren 29ko 13:30ak arte aurkeztu beharko da, eta honako dokumentazio hau jaso beharko du:

1. Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-txostena,

en función de la presente subvención.

m) Justificar la ejecución material del proyecto y la dedicación íntegra del importe de la subvención concedida.

n) Autorizar y colaborar con la Diputación Foral de Bizkaia en la difusión y publicación de los proyectos subvencionados a través de los medios que se consideren oportunos.

ñ) La entidad beneficiaria estará obligada en su caso, a cumplir las exigencias de publicidad activa contenidas en su Título II de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

o) La entidad beneficiaria deberá cumplir con lo previsto en el artículo 46 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la igualdad de Mujeres y Hombres, salvo que razones de interés público justifiquen la exención de estas obligaciones en cuyo caso el órgano proponente deberá presentar informe justificativo.

Base 16. *Plazo y forma de justificación de la subvención.*

La entidad beneficiaria de la subvención, además del cumplimiento de las obligaciones a las que hace referencia el artículo anterior, se compromete a justificar la ejecución material del proyecto y la dedicación íntegra del importe de la subvención concedida al mismo mediante la presentación de una cuenta justificativa. Para ello, deberán cumplimentarse los modelos que a la entrada en vigor del presente decreto foral figuren publicados en la sede electrónica, de conformidad con el artículo 57 del reglamento de la norma foral de subvenciones.

Esta cuenta justificativa deberá presentarse desde las 00:00h del 2 de enero hasta las 13:30h del 29 de mayo de 2026, y contendrá la siguiente documentación:

1. Una memoria de actuación, justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 97ER-VW2P-P8TD-EUPP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

egindako ekintzak eta lorturiko emaitzak adierazita.

Jarduera-txosten horrek eduki hau izan behar du:

a. Erakundeari buruzko datuak.

b. Deskripzioa:

- Helburuen lorpen-maila
- Talde eragilea. Deskribapen laburra, partaideen kopura eta egindako lanak.
- Partaideei buruzko datuak. Sexuaren eta adinaren arabera (60 urtetik beherakoak eta gorakoak) bereizitako datuak.
- Egindako ekintzak, ebaluazioa, erabilitako tresnak eta lortutako emaitzak.
- Proiektuan jasota dauden baina egin ez diren ekintzak.
- Gauzatze-egutegia.
- Giza baliabideak, antolaketa-egitura eta funtzionamendurako egitura.
- Erabilitako baliabide materialak.

2. Egindako ekintzen kostua frogatzen duen txosten ekonomikoa, honako hauek dituena:

a. Proiektuari egotzitako sarrera-gastuen egoera-orria(E374).

b. Gastuen zerrenda sailkatu bat, gastuen egoera-orriko kontzeptu bakoitzeko, non hauek adieraziko diren: hartzekoduna, agiria, haren zenbatekoa eta jaulkipen-data (E376).

en la concesión de la subvención, con indicación de las acciones desarrolladas y de los resultados obtenidos.

La memoria de actuación deberá ajustarse al siguiente contenido:

a. Datos de la entidad.

b. Descripción:

- Grado de consecución de los objetivos.
- Equipo motor. Breve descripción, número de integrantes y tareas desarrolladas.
- De las personas participantes. Datos desagregados por sexo y edad (mayores y menores de 60 años).
- De las acciones realizadas, valoración, herramientas y resultados obtenidos.
- De las acciones no realizadas y previstas en el proyecto.
- Calendario de ejecución.
- De los recursos humanos, estructura organizativa y de funcionamiento.
- De los medios materiales utilizados.

2. Una memoria económica, justificativa del coste de las acciones realizadas, que contendrá:

a. Un estado de ingresos y gastos, imputados al proyecto (E374).

b. Una relación clasificada de gastos y para cada uno de los conceptos del estado de gastos, con indicación del acreedor o acreedora y del documento, su importe y fecha de emisión (E376).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 97ER-VW2P-P8TD-EUPP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

c. Ordainketen fakturen eta egiaztagirien kopia.

Toki-erakundearenak diren eta proiektuari egotzi zaizkion gastuak justifikatzeko, beharrezkoa izango da toki-erakundeko idazkariak edo kontu-hartzaileak emandako ziurtagiria.

Gastu orokorrak eta/edo zeharkakoak egotzi ahal izango zaizkio proiektuari, 8. artikuluan 1. zenbakiaren a) eta b) letretan adierazitako gastu guztien % 10era arte. Justifikatzeko, beharrezkoa izango da toki-erakundeko idazkariak edo kontu-hartzaileak emandako ziurtagiria.

d. Diruz lagundutako proiektuari egotzitako sarrerak sarrera eta gastuei buruzko dokumentuan (E374) zehaztutakoak direla ziurtatzeko agiri bat; ziurtatu behar da, gainera, ez dagoela proiektuari egotz dakiokeen bestelako sarrerarik.

e. Hiru hornitzaileren eskaintza zehatzak, eta hornitzailearen aukeraketa arrazoitzeko txosten bat, proposamen ekonomiko onena aukeratu ez dutenean, alegia. Hiru eskaintzen zerrenda aurkeztu behar da, hain zuzen ere, diruz laguntzen den gastuaren zenbatekoa 15.000 eurotik gora gehi BEZa bada, Diru-laguntzei buruzko foru arauko 29.3 artikuluan ezarritakoaren arabera. Gizarte Ekintza Sailak, duen kontrol-ahala erabiliz, ondoren ere eska ditzake eskaintzok aurketzea.

f. Hala badagokio, eta aplikatu gabeko soberakinik badago, itzulketaren ordainketa-gutuna edo dagokion transakzioa egiaztatzeko agiria, bai eta haien ondoriozko interesak ere.

c. Copia de las facturas y justificantes acreditativos del pago de las mismas.

Aquellos gastos propios imputados al proyecto deberán ser justificados mediante la presentación del certificado correspondiente emitido por el secretario o secretaria o interventor o interventora de la entidad local correspondiente.

Los gastos generales y/o indirectos podrán imputarse hasta el 10% del total de gastos señalados en las letras a) y b) del artículo 8.1. y serán justificados mediante la presentación del certificado correspondiente emitido por el secretario o secretaria o interventor o interventora de la entidad local correspondiente.

d. Certificado de que los ingresos imputados al proyecto subvencionado son los indicados en el documento de ingresos y gastos (E374), y que no hay otros ingresos que pudieran ser imputables a dicho proyecto.

e. Una relación detallada de tres ofertas de diferentes proveedores, así como la memoria que justifique razonablemente la elección del proveedor cuando la misma no haya recaído en la propuesta económica más ventajosa. Esta relación se aportará cuando el importe del gasto subvencionable supere la cuantía de 15.000 euros más IVA, conforme a lo previsto en el artículo 29.3 de la norma foral de subvenciones. El Departamento de Acción Social, en virtud de su facultad de control podrá solicitar tales ofertas con posterioridad.

f. En el caso de que proceda, la carta de pago de reintegro o documento acreditativo de la transacción correspondiente, en el supuesto de remanentes no aplicados, así como los intereses derivados de los mismos.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 97ER-VW2P-P8TD-EUPP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

17. oinarria. *Baldintzak ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea.*

1. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 32. eta 33. artikuluetan jasotako kasuetan itzuli beharko dira bai dirulaguntza dela-eta jasotako dirukopuruak bai dirulaguntza ordaindu zenetik itzultzea erabakitzen den arte sortutako berandutze-interesak.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, erakunde onuradunak aplikatu beharreko arautegia bete badu eta konpromisoak zalantzarik gabe erabat betetzeko jokabidea duela ikusten bada, berandutze-interesak dirulaguntza ordaindu den unetik deialdian gastuaren justifikazio-kontua aurkezteko ezarritako azken egunera arte sortutakoak izango dira.

2. Diruz lagundutako proiektua egin dela justifikatzeko ezarritako epeak igarota, aurrez ikusitako eran egin direla osorik ziurtatu eta justifikatu ez badira edo egin eta justifikatutako gastua konpromisoan hartutakoa baino txikiagoa izan bada, eta, betiere, kasu bi horietan, dirulaguntzaren xedea eta helburua betetzat jotzen badira, dirulaguntzaren zenbatekoa doitu egingo da benetan justifikatu edo izandako kostuen arabera, eta dirulaguntza emateko irizpide eta mugen araberako proportzionaltasun-irizpidea aplikatuko da.

Itzulketa bere borondatez egin dezake erakunde onuradunak, ordainketa-gutun baten bidez, aurretiazko likidaziorik gabe; Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari eska diezaioke gutun hori.

18. oinarria. *Kontrol ekonomikoa eta finantzarioa.*

Base 17. *Incumplimiento y reintegros.*

1. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas en concepto de subvención, con la exigencia de los intereses de demora correspondientes desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos previstos en los artículos 32 y 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, reguladora del régimen jurídico de las subvenciones otorgadas por la administración foral.

No obstante, lo establecido en el apartado anterior, en los supuestos que la entidad beneficiaria haya cumplido con la normativa aplicable, y siempre que se observe una actuación por su parte inequívocamente tendente a la satisfacción de sus compromisos, el cálculo de los intereses de demora se realizará desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha límite establecida en la convocatoria para la presentación de la cuenta justificativa del gasto.

2. Si transcurridos los plazos establecidos para la justificación de la realización del proyecto subvencionado no se hubiera acreditado y justificado en su totalidad su ejecución en la forma prevista, o el gasto realizado y justificado hubiera sido inferior al comprometido, siempre que, en ambos supuestos, se entiendan cumplidas la finalidad y objeto de la subvención, se procederá al reajuste de la cuantía en función de los costes efectivamente justificados o ejecutados, aplicándose el criterio de proporcionalidad en relación con los criterios y límites establecidos para su otorgamiento.

Dicho reintegro podrá realizarlo la entidad beneficiaria de manera voluntaria, mediante la pertinente carta de pago sin liquidación previa que podrá solicitar al Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.

Base 18. *Control económico y financiero.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 97ER-VW2P-P8TD-EUPP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak, kontrol ekonomiko eta finantzarioa egiteko dituen organoen bidez, edozein unetan ikuskatu eta kontrolatu dezake bai dirulaguntza zertarako erabiltzen den, bai diruz lagundutako programa betetzen den.

Horretarako, erakunde onuradunak organo horien eskura jarri behar ditu eskatzen zaizkion agiri guztiak, dirulaguntza emateko arrazoi diren gastuak egokiro kontrolatu eta ikuskatzeko. Gainera, organo horiei askatasuna eman behar die nahi dutenean sartzeko diruz lagundutako ekintza egiten den lokal, establezimendu edo lekuetara edo dirulaguntzaren kargura finantzatutako eragiketen errealitatea egiaztatu ahal izateko.

19. oinarria. *Ikuskapena, jarraipena eta ikuskaritza.*

Toki-erakundeak berehala jakinarazi behar dizkio Gizarte Ekintza Sailari proiektuko ekintzen ohiko garapena aldatzea dakarten gertakari guztiak eta, bereziki, ekintzak etetea eragiten dutenak, nahiz eta etete hori behin-behinekoa izan.

Horrez gainera, Gizarte Ekintza Sailak ikuskatu egingo ditu proiektuko ekintzak, eta erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du zeregin horretan laguntzeko.

20. oinarria. *Dirulaguntzaren erakunde onuradunetako arduradunen Datu pertsonalen tratamendua.*

1. Datu pertsonalak tratatzeko, kontuan hartuko da zer ezartzen duten 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, zeinak hizpide hartzen baitu pertsona fisikoen babesa datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, zeinak arautzen baititu Datu Pertsonalen Babesa eta Eskubide Digitalen Bermea.

El Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, a través de sus órganos de control económico y financiero, podrá en cualquier momento inspeccionar y controlar el destino de la subvención, así como el cumplimiento del proyecto subvencionado.

A tal efecto, la entidad beneficiaria asume la obligación de poner a disposición de dichos órganos toda la documentación que le sea requerida, con el fin de facilitar un correcto control e inspección sobre los gastos para los que se concede la subvención. Asimismo, permitirá el libre acceso a los locales y establecimientos o lugares en los que se desarrollen las acciones subvencionadas o pueda verificarse la realidad de las operaciones financiadas con cargo a la subvención.

Base 19. *Supervisión, seguimiento e inspección.*

La entidad local comunicará inmediatamente al Departamento de Acción Social aquellas incidencias que supongan una alteración del desarrollo normal de las acciones del proyecto, y, en especial, las que impliquen una interrupción de las mismas, aunque sea con carácter provisional.

Adicionalmente, el Departamento de Acción Social realizará una labor de inspección de las acciones del proyecto y, en consecuencia, la entidad beneficiaria se compromete a facilitar dicha labor.

Base 20. *Tratamiento de datos personales de las personas responsables de las entidades beneficiarias de la subvención.*

1. Los datos personales serán tratados de conformidad a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679, de 27 abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 97ER-VW2P-P8TD-EUPP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. Tratamenduaren arduraduna Gizarte Ekintza Saileko Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia da (Ugaskobidea 3 bis, 48014 Bilbo), eta datuak babesteko ordezkaria, berriz, Informazioaren Segurtasun eta Datu Babeserako Atala (Kale Nagusia 2 -6°, 48001 Bilbo).

3. Tratamendu hori ahal publikoak baliatzeko eta legezko betebeharrak betetzeko egingo da.

4. Datuak interesdunari edo haren ordezkariari eskatuko zaizkio, baita beste administrazio, erakunde, erregistro edo entitate publiko edo pribatu batzuei ere, legeak ezartzen dituen mugen barruan.

5. Lortutako datuak udalei edo mankomunitateei, esleituta dituzten jarduerak egiteko eta udal zerbitzuak mantentzeko, ematen zaizkien dirulaguntzak kudeatzeko erabiliko dira.

6. Datu pertsonalak legezko betebehar batek aginduta edo interesdunak baimena ematen duenean baino ez dira lagako. Horrez gainera, ez da aurrez ikusten hirugarren herrialdeetara edo nazioarteko erakundeetara datu-transferentziarik egitea.

7. Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzendu edo ezaba daitezela eskatzeko edota haien tratamendua mugatu edo aurkaratzeko idazki bat bidaliz Informazioaren Segurtasun eta Datuen Babeserako Atalera.

8. Eskubide horietakoren bat baliatzeko aukera mugatu egin daiteke bateraezina denean botere publikoen jardunarekin edo aplikagarria den araudiaren arabera legezko betebeharrak betetzearekin.

9. Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio xeheagoa kontsulta dezakezu Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan, hartarako prozeduran.

2. El responsable del tratamiento es la Dirección General de Promoción de la Autonomía Personal, ambas del Departamento de Acción Social (Ugaskobidea 3 bis 48014 Bilbao) y la persona Delegada de Protección de Datos es la Sección de Seguridad de la Información y Protección de Datos (Gran Vía, 2 -6° - 48001 Bilbao).

3. Dicho tratamiento se realizará en el ejercicio de potestades públicas y el cumplimiento de obligaciones legales.

4. Los datos serán obtenidos de la persona interesada, o su representante, y de otras administraciones, organismos, registros o entidades públicas o privadas, dentro de los límites legales establecidos.

5. Los datos recabados serán utilizados para la gestión de subvenciones a ayuntamientos o mancomunidades para el ejercicio de las actividades que tienen atribuidas y el mantenimiento de los servicios municipales.

6. No se realizarán cesiones de datos personales, salvo por obligación legal o consentimiento de la persona interesada. Tampoco se prevén transferencias a terceros países u organizaciones internacionales.

7. La persona interesada tiene derecho a acceder a sus datos, solicitar su rectificación, supresión o la limitación u oposición al tratamiento mediante escrito dirigido a la Sección de Seguridad de la Información y Protección de Datos.

8. El ejercicio de alguno de estos derechos puede verse limitado cuando sea incompatible con el ejercicio de los poderes públicos o con el cumplimiento de obligaciones legales de acuerdo con la legislación aplicable.

9. Puede consultar la información detallada sobre el tratamiento de los datos personales en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia en su procedimiento correspondiente.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 97ER-VW2P-P8TD-EUPP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

21. oinarria. *Diruz lagundutako jardueran parte hartzen duten pertsonen Datu pertsonalen tratamendua.*

1. Foru dekretu honen xederako emango den dirulaguntzaren erakunde onuraduna izango da datu pertsonalen tratamenduaren arduradun bakarra, eta, zehatzago, manu hauetan ezartzen diren printzipio eta obligazioak bete beharko ditu: batetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46 Zuzentaraua indargabetzen duena, eta bestetik, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko dena.

2. Aurrekoaren ondorioz, beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolaketa arlokoak hartuko ditu araudi hori betetzen dela bermatzeko; edonola ere, Bizkaiko Foru Aldundia salbuetsita egongo da datu horien tratamenduaren erantzukizunetik.

3. Baldin eta entitateak Bizkaiko Foru Aldundiari komunikatu beharko balizkio diruz lagundutako jarduеretako parte-hartzaileen datuak, orduan Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak hartuko du tratamendua egiteko ardura, eta datuok integratu egingo dira "Autonomia pertsonala sustatzea eta mendekotasun- eta desgaitasun-egoeretarako laguntza ematea" arloaren tratamenduan.

4. Horrez gain, Erregelamenduaren 13. artikuluan ezarritakoa betetzeko, entitateak jakinaraziko die diruz lagundutako jardueretako parte-hartzaileei ezen beren datuak Bizkaiko Foru Aldundiari komunikatuko dizkiola, hala zorroko beste zerbitzu batzuekin bateragarri denez egiaztatzeko eta gizarte-zerbitzuen arreta osoa bermatzeko.

5. Hori guztia gorabehera, datu pertsonalak unean-unean errekeritu ahalko dira hala egiaztatzeko ea dirulaguntza benetan aplikatzen ari den zertarako

Base 21. *Tratamiento de datos personales de las personas que participan en la actividad subvencionada.*

1. La Entidad beneficiaria de la subvención objeto de este decreto foral, será la única responsable de los tratamientos de los datos personales, debiendo cumplir, particularmente, con los principios y obligaciones que pudieren derivarse del Reglamento (UE) n.º 2016/679, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46 y de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

2. En virtud de lo anterior, adoptará cuantas medidas técnicas y organizativas sean necesarias para garantizar tal cumplimiento quedando la Diputación Foral de Bizkaia eximida de cualquier responsabilidad en el tratamiento de estos datos.

3. En caso de que la entidad deba comunicar a la Diputación Foral de Bizkaia datos de las personas participantes en las actividades subvencionadas, la Dirección General de Promoción de la Autonomía Personal pasa a actuar como responsable del tratamiento, integrándose dichos datos al tratamiento de "Promoción de la autonomía personal y atención a la dependencia y la discapacidad".

4. Asimismo, en cumplimiento de lo establecido en el art. 13 del Reglamento, la entidad informará además a las personas participantes de las actividades subvencionadas de que sus datos serán comunicados a la Diputación Foral de Bizkaia, con el objeto de verificar la compatibilidad con otros servicios de cartera y garantizar la atención integral de los servicios sociales.

5. Todo ello sin perjuicio de que puntualmente pudieran requerirse datos personales para la verificación de la efectiva aplicación de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 97ER-VW2P-P8TD-EUPP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eman baita eta hartarako, dirulaguntzak erregulatzen dituen araudia betez.

subvención a los fines para los que se concede, en cumplimiento de la normativa reguladora de subvenciones.

Gizarte Ekintza Saileko foru-diputatua / La diputada foral del Departamento de Acción Social. AMAIA ANTXUSTEGI ZIARDA

Ahaldun nagusia / La Diputada Foral. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 97ER-VW2P-P8TD-EUPP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 97ER-VW2P-P8TD-EUPP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus